

UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBA  
25 URTETIK GORAKOENTZAT ETA 45 URTETIK GORAKOENTZAT

# PROBA OROKORRA

2015eko PROBA



**IRUZKIN**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45  
URTETIK GORAKOAK

2015eko MAIATZA

**IRUZKINA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2015

**COMENTARIO**

## Argibideak

Probaren iraupena: 45 minutu

**Testu honetan oinarrituta, egizu testuaren ostean datorren jarduera**

### Txiki-txiki...

*Txiki, txiki, txikia...* Abesti hauxe da nire alabak gehien atsegin duena. Lotartzeko ezin hobea da. Kantatzen hasi bezain pronto, **adi-adi** entzuten du letra eta loak bereganatzen duen arte hortxe egoten da, ixil-ixilik.

Ez dakit abestiak eraginda den edo haur guztiek antzera jokatzeko ote duten baina, kontua da, Dunak txikieriak gustuko dituela. Hobeki esanda, gauza txikien mundua atsegin du. Zenbat eta txikiago, orduan eta **irrika** gehiago eragiten dio. Ogi pusketak zenbat eta mami gehiago, are gustagarriago ze, mamia bere hatz txikiaz hartu eta bolatxo **nanoak** egin arte txikitzen du ahoan sartu aurretik. Gure alabak lurretik belar pusketak harrapatzea atsegin du eta arropen etiketei begira orduak pasatu ahal ditu. Alferrik oparitutako diozu jostailu erraldoi bat, berak askoz arreta gehiago jarriko baitu zure alkandoraren botoian. Txikiaren handitasuna baloratzen du berak eta guri, nagusioi, txikia den ororen presentziaz ohartarazi digu. Izan ere, handitzen goazen neurrian handia den edozerk tentatzen gaitu. Handia hobea balitz bezala. Zenbat eta handiago izan **baliotsuago** balitz bezala. Diru kantitate handia, neurri luzea, auto handia, bi solairutako **etxetzarra**...

Txikien erreinuan gauza txikiek agintzen dute, baina adinean aurrera egin ahala handiak izateko presa daukagu. Eta nagusitzean, gauza handiak eskuratzen gaitzen dugu denbora; txikiak gineneko hainbat eta hainbat une zoriontsu nostalgiaz gogoratzen ditugun bitartean. Nire lagun batek dioen bezala “nik, handitzean, txikia izan nahi dut”.

JASONE OSORO

<http://jasoneosoro.com/es/testuak/zutabeak/>



**Aurreko testuan oinarrituta, idatzi 20-25 lerroko testu bat. (10 puntu)**

**GAIA: Txikitako kantik. Nolako oroitzapenak dakarzkizute gogora? Nolako lotura duzu haiekin?**

**Egitekoa**

Zure herriko aldizkarian herritarren iritzia jakin nahi dute txikitako abestiei buruz. Zuk artikulu bat idatziko duzu. Horretarako, gidoi hau proposatzen dizugu, baina beste gidoi baten arabera ere idatz dezakezu:

- Azaldu gaur egun entzuten dugun musikak ea zerikusirik duen txikitako entzuten genuenarekin eta gustuko genuenarekin.
- Konta ezazu txikitako zer musika entzuten zenuen.
- Zein hizkuntzatan entzuten zenuen musika eta zein kanta gustatzen zitzaizun? Arrazoitu zergatik zenuen hain gustuko. Zer iradokitzen zizun gustukoaren zenuen hark?
- Egizu konparazioa gaur egun entzuten diren ume txikientzako abestiekin edo gaur egungo musikarekin.
- ...

**Kontuan hartu aholku hauek:**

- Zirriborroa egitea komeni zaizu ideiak antolatzen laguntzeko.
- Kontuan hartu testu-generoaren egitura:
  - o Sarrera idatzi lehenengo paragrafoan.
  - o Hurrengo pasarteetan garatu zure ideiak.
  - o Azken paragrafoa erabili ondorioak biltzeko.
- Idazlana bukatzen duzunean, errebisatu entregatu baino lehen.
- Zirriborroa azterketarekin batera eman.

**Idazlana zuzentzeko honako ezaugarri hauek balioetsiko dira:**

- Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze maila, testu-generoaren egitura, erregistroa...).
- Ideien garapena eta koherentzia (ideiak ez daitezela kontraesankorrak izan, ezta sakabanatuegiak ere).
- Esaldien eta pasartearen arteko kohesioa (erreparatu puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari, testu antolatzaile eta lokailuei);
- Testuaren zuzentasuna (morfosintaktikoa eta ortografikoa), egokitasuna eta aberastasuna.



## TESTU IDATZIA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

<b>10-7 puntu</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>– Testuak informazio esanguratsua du eta ondo antolatuta dago paragrafotan.</li><li>– Argudio ondo garatuak eta esanguratsuak erabiltzen ditu bere iritzia adierazteko.</li><li>– Edukia ondo hautatua dago, bai kantitatez bai kalitatez, gaia ondo garatzen du..</li><li>– Testuak erregistro egokia du.</li><li>– Puntuazio-zeinuak ondo erabilia daude, baita lokailuak eta baliabide anaforikoak ere.</li><li>– Lexiko zehatza eta aberatsa darabil.</li><li>– Morfosintaxian ez du akatsik egiten eta egitura sintaktiko zuzenak eta aberatsak erabiltzen ditu.</li><li>– Ia ez dago ortografia- akatsik (3 baino gutxiago), ez eta hutsegite gramatikalik ere.</li></ul>
<b>6-4 puntu</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>– Testuak zenbait akats ditu (edukian eta forman) hala ere, akatsek ez dute oztopatzen ulermena.</li><li>– Argudio batzuk errepikatu egiten dira edo ez daude ondo garatuta.</li><li>– Paragrafoak, batzuetan, ez daude ondo egituratuta</li><li>– Testua ongi ulertzeko informazioa falta da zenbaitzuetan; edo informazioa errepikatua ageri da edo garrantzirik gabea aipatzen da (betelana).</li><li>– Espresio-akatsak daude</li><li>– Testu atal batzuk ulertzeko zailtasuna batzuetan.</li><li>– Morfosintaxian akatsen bat edo beste</li><li>– Ortografia akatsak antzematen dira.</li></ul>
<b>4 puntu baino gutxiago</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>– Testuak ulermen globala eragozten duten oinarrizko akatsak ditu. Koherentzia-, kohesio-, zuzentasun- edo/eta egokitasun-akatsak daude.</li><li>– Ageri agerikoak dira gabezia komunikatibo eta linguistikoak.</li></ul>